

Nor da nire lagun hurkoa?

20. saioa

ZEHAZPENAK

Behinola Jesusi egin zioten galdera egingo diogu orain geure buruari: *Nor da nire lagun hurkoa?* Samariar onaren eskutik, Jesusen proposamena ezagutuko dugu: "lagun hurkoa", nire beharra duten guztiak dira eta batez ere ahulezia handian badaude, naiz eta "neuretar" ez izan. Horretarako prest ote gaude?

SAIOAREN HELBURUAK

Helduak:

- Makalenaren zainketaren samariar kultura, Jesusen jarraitzaileen berariazko kultura dela antzeman
- Samariarraren antzera, geu ere lagun hurko izan gaitzekoen egoeraren bat aipatu
- Lagun hurkoari doan laguntzearen poza bizi

Haurrak:

- Gurasoen eta guztiok maite gaituen Jainkoaren maitasuna eskertu
- Lagun hurkoari doan laguntzearen poza bizi

GARAPENA

Saio hau elkarrekin egingo dugu heldu eta hurrek, ez gara banatuko.

Harrera egin eta elkar agurtu ondoren, giro egokia sortuko dugu eta saioari hasiera emango diogu.

Lehenengo eta behin, bideoa ikusiko dugu. Arretaz ikus dezagun, kontaketa zertaz doan jakiteko. Ondorengo esteka honetan aurkituko dugu aipatutako bideo hori: https://www.youtube.com/watch?v=DMyGa5Z_wbl

Bideoa amaituta, galdera egingo diegu: zer gertatu da?, zertaz doa istorio hau? Eragileak azalduko die istorio oso garrantzitsua eta esanguratsua dela, Jesusek berak kontatu zuelako behin bere adiskideei. *Samaria Onaren* parabola da eta orain ebanjeliotik irakurrik dugu dagokion txatala: Lk 10, 25-37 (moldatutako idazkia duzue lagungarrien karpetan).



Denok batera sakonduko dugu Samariar onaren parabolaren esanahian, jasotzen diren balioak eta gure bizimodurako izan behar duen eragina aztertuz. Hona hemen galdera batzuk elkarrizketa abiatzeko:

- Zergatik ez dira gelditzen zauritua ikusten duten lehenengo biak?
- Zerk bereizten du samariarra beste biengandik?
- Parabolako noren antza izan nahiko genuke?
- Zer behar dogu samariarraren antzeko izateko?

Parabola azertu eta bere irakaspenak geure egiteko, ondorengo irudiez balia gaitzake, batzuen eta besteen jarreraren isla baitira:



Lurrean botata dagoen gizona zaurituta dago eta laguntza behar du. Zer egin dezakegu?

Batzuk, ikusi eta bidean aurrera egiten dute.



Samariar onak ez du aurrera egiten. Hurbildu, sendatu eta zaindu egiten du. Eta guk?

Parabolari buruzko elkarrizketa amaitu ondoren, familian banatu daitezela edo familien taldeak egin ditzatela, parabola eguneratzeko dinamika egiteko. Familia-multzo bakoitzak antzeppen txiki bat prestatuko du parabolaren kontatzen denaren antzeko zerbait islatzen duen eguneroko gertaera baten inguruan. Auzotarrekin, ikastetxean, lanean, familian,... norbaitek era bateko edo besteko laguntza behar duenean, zer egiten dugu? Prestatzeko denbora apur bat eman eta, ondoren, antzeppenak aurkeztu.

Antzezpenak amaitu eta horien inguruan jardungo dugu, batez ere ondorengoa nabarmenduz:

- Zer ulertu dugu?
- Zerk eragin digu zirrara gehien?
- Ezagutzen dugu, gertuago ala urrunago, arazoak dituen jenderik?
- Gelan norbaitek laguntza behar badu, lagundu egiten dut samariar onaren antzera ala beste batzuekin joaten naiz?
- Zer egingo zukeen Jesusek egoera honetan?
- ...

Hartu nahi dugun konpromisoa adierazteko, keinu bat egingo dugu. Partaideei (haur eta heldu) tiritu bana emango diegu. Tiritu horretan idatz dezatela behartasunean dagoena sendatzeko eta zaintzeko ekintza edo jarrera. Lurzoruan dagoen zaurituaren irudiaren gainean (1. irudia), lagun bakoitzak bere tiritu ipiniko du, beti "samariar on" izan nahi dugula adieraziz.

Azkenik, abesti hau entzun eta abestuko dugu: <https://www.youtube.com/watch?v=-6EBJ8CwYfs>

ETXEAN – FAMILIAN JARRAITZEKO

Hona hemen jarduera hau, saioan bizi izan dugun esperientziari familian jarraipena emateko.

Apurtutako bihotz bana emango diegu familiei. Denek ikusteko moduko lekuan ipini dezatela etxean. Denon artean, bihotza sendatu eta berregin egingo dugu, familiako batek behartasunean dagoen norbaiti laguntzeko zerbait egiten duen bakoitzean tiritu bat ipiniz.

Lagungarrien karpetan, "Cuerdas" laburmetraia aurkezten dizuegu. Nahi izanez gero, ikusi etxean eta komentatu. Merezi du!

